

ETAren gutuna enpresariei

Agur t'erdi

ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, zure elkarteko afiliatuei eta, oro har, enpresa ugazaba orori gure erakundeak egin ohi duen iraultza zerga ordaintzeko exigentzia bertan behera geratzen dela jakinaraztea eskatu nahi dizu gutun honen bitartez. Urtarrilaren 10a geroztik indarrean dagoen su-eten iraunkor eta orokorraren ondorioztat hartu behar dute.

Aldi berean, zuk ordezkatzeko duzun sektore sozial horrek duen eragin eta indarra kontuan izanik, Euskal Herrian konponbide justu eta demokratiko bat lortzeko ireki den aukera babesteko eta bultzatzeko eskatu nahi diogu, irekitako prozesua denon onerako izango delako. Publikoki gutun honen berri eman ala ez zure esku uzten dugu, beste batzuetan ere ETAk bidalitako gutunen berri eman baitu zure elkarteak.

Adeitasunez

Euskal Herrian, 2011ko martxoan

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.